

## ARGAZKI HISTORIKOEN FUNTSAREN ISAD

### Identifikazio-arloa

Erreferentziazko kodea	ES 48020 AHFB/BFHA FOT FHI
Titulua	Argazki historikoa
Data(k)	1873 – 1874
Deskribapen maila	Funtsa
Deskribapen-unitatearen bolumena eta euskarria	– Albumak: 1 – Signatura kopurua: 96 Papera.

### Testuinguru arloa

Ekoizlearen izena	Charles Monney
Instituzio historia	Charles Monney Millet, Carlos Monney izenez ere ezaguna, hogeitaz urtez Espainian bizi izan zen argazkilari frantziar bat izan zen. Hari zor diogu gure herrian gertatutako gatazka baten lehenengo erreportajea: 1874ko otsailaren 21ean tropa karlistek Bilbo bonbardatu zutenekoa.
Artxibo historia	Charles Monney Milletek estudio bat muntatu zuen Bilbon, eta II. Karlistaldiarekin eta Bilbo liberalean karlistek lau hilabetez egin zuten setioarekin kointziditu zuen. 1874an gertakizun horri buruzko album ezagun bat egin zuen, paper albuminatuko 95 argazki eta eskuz idatzitako argazki-oinekin, folio handiko album batean koadernatuta, etzana eta kutxa batean aurkeztuta.
Sarrera modua	Funts hori Bizkaiko Foru Aldundiak erosi zuen 1925ean.



## Eduki eta egitura arloa

Irismena eta edukia	“El Sitio” (Setioa) izenaz ezagutzen den album honetako irudiek II. Karlistaldian Bilboren segurtasun-hesia osatzen zuten bateriak erakusten dituzte. Horrez gain, argazkietan honako hauek ageri dira: boluntario laguntzaileak, Morro eta Miravilla gotorlekuen barrualdeak, San Agustin gotorlekuaren defendatzaileek egindako azken prestaketak, kaleetan sortutako herri-batailoiak, eraikin enblematikoak babesteko asmoz (Bilboko Bankua, adibidez), lur-zakuak edo behilarruak jartzeko egin ziren lanak, hiribilduaren defentsa-buru izandako Castillo Jeneralaren erretratua, eta bombardaketaren lehen egunean jaurtigaiak euskal hiriburuan erori ziren uneko panoramika bikaina.
Erakundea	Irudi horiek guztiak album batean ordenatuta daude.

## Lotutako dokumentazio arloa

Lotutako deskribapen unitatea	Argazki Historikoen funtsaren edukiari lotutako dokumentu-iturriak daude BFAHko hainbat ataletan (karlistaldiak).
-------------------------------	---

## Kontrol arloa

Artxibozainaren oharra	Actuaciones Culturales Estrategicas 4, S.L. enpresak egindako deskribapena.
Deskribapenaren data	2020/01/20